

#izanbirala 2022

ERRONKEN LEHIAKETAREN OINARRIAK

– Nork har dezake parte?

13-25 urte bitarteko gazteentzat aurreikusitako lehiaketa da. Bakarka edo taldeka hartu daiteke parte. Talde bakoitzeko parte-hartzaile kopuruak eta aurkez daitezkeen lan kopuruak ez du mugarik izango.

– Zertan datza?

2022ko #izanbirala lehiaketan lau erronka egongo dira. Helburua da gazteek sareetan euskarazko edukiak sortzea, kontsumitzea eta partekatzea. Parte hartzaileek erronka horiek egin eta beraien sare sozialetara igo eta GozatuSareanEuskaraz gunera bidali beharko dituzte beraien lanak (erronkaren arabera).

Elementu guztiak osatzean, parte-hartzaileak automatikoki baieztatuko du arau ofizial guztiak onartzen dituela.

– Iraupena:

#izanbirala lehiaketak hilabete eta erdiko iraupena izango du bi txandatan banatuta:

Lehenengo txandan:

- Meme lehiaketa (Instagramen). #nirememea
- Euskaraz ez den abesti bat euskaratu (TikToken). Izan daiteke itzulpena edota letra aldatzea. #JarriErritmoa

Bi lehiaketa hauetan parte hartzeko bi aste egongo dira eta hurrengo astean balorazioa eta sari banaketa izango dira:

- Parte hartzeko epea: urriaren 17tik urriaren 27ra
- Sari banaketa: urriaren 31tik azaroaren 4ra bitartean.

Bigarren txandan:

Hurrengo bi asteetan TikTokeko bi egoera parodiatzeko txanda izango da. Bi egoera mota emango dira:

- Koadrilan ematen diren egoerak. #nirekuadrilanere
- Etxean ematen diren egoerak. #nireetxeanere

Horren ondorengo astean balorazioa eta sari banaketa izango dira.

- Parte hartzeko epea: azaroaren 7tik azaroaren 20ra.
 - Sari banaketa: azaroaren 21etik azaroaren 27ra bitartean.
- **Aurkeztu beharreko lanen ezaugarriak:**
- Euskaraz.
 - TikTokeko bideoei dagokienez: gutxienez minutu erdiko eta gehienez bi minutuko iraupena (30"-120").
 - Meme lehiaketara aurkezteko lanen formatuari dagokionez: "jpg." edo "png."
 - Ez dira onartuko eduki iraingarriak edota, errespetu gabekoak, ezta kalitate-maila nahikorik ez dutenak ere. Bideoen bat edo edukiren bat egokitzat jotzen ez bada, ez da publikatuko eta lehiaketatik kanpo geldituko da.
- **Bideoak edo edukiak aurkezteko modua:**
- TikTokeko erronken kasuan, bideoa egin eta bakoitzak bere kontura igo beharko du #izanbirala eta erronkari dagokion traola erabiliz. Horrez gain parte hartzaileek posta elektronikoko bidez bidali beharko dute gozatusareaneuskaraz@gmail.com, izena eta erronka adieraziz.
 - Meme lehiaketari dagokionez, posta elektronikoko bidez bidali beharko da erronkara aurkeztutako irudia, erronka eta izena adieraziz. Ondoren epaimahaiak aukeraketa bat egingo du aurkeztutako guztien artean, eta horiek GozatuSareanEuskaraz gunearen instagram kontura igoko dira. Memek gozatusareaneuskaraz@gmail.com helbidera bidali beharko dira.
 - Lehiakideek smartphone bat erabil dezakete bideoa filmatzeko, eta formatu bertikala izan behar du TikTok eta Instagramentzat.
 - Parte-hartzaileek beraien sareetara igotzen dituzten bideoak GSE sare sozialetako profiletan zein webgunean partekatu ahal izango dira.
 - Bideoek ezin dute egile eskubideak dituen irudirik edo musikarik erabili TikTok musika liburutegitik eta lehiaketako musikatik kanpo.
 - Bideoek ezin dituzte urratu edozein pertsonaren pribatutasuna edo irudi-eskubideak (hildako inorena ere ez).
 - Lehiakideek TikTok zerbitzuko terminoak bete behar dituzte. Horren arabera, zerbitzuak eskuratzeko edo erabiltzeko pertsonak 13 urte edo gehiago izan behar ditu, eta ezin du edozein pertsonarentzat difamatzailea den materialik eskura jarri, (lizuna, iraingarria, pornografikoa, gorrotagarria, arrazista, diskriminatzailea edo subertsiboa). <https://www.tiktok.com/legal/terms-of-service? Lang =>
 - Heldu gazteentzako TikTok-en pribatutasun-politikari buruzko informaziorako: <https://www.tiktok.com/legal/privacy-policy-for-younger-users? Lang = es>
 - TikToken politika intelektualei buruzko informaziorako: <https://www.tiktok.com/legal/copyright-policy? Lang = es>

– **Baloratuko diren alderdiak:**

Erronka bakoitzeko bi sari egongo direnez, baloratuko diren bi alderdi multzo egongo dira:

- Batetik, originaltasuna, umorea eta edukiaren kalitate teknikoa. Horrez gain, abesti edo doinuren bat erabiltzen denean, euskaraz baldin bada balorazio hobea lortuko du bideoak.
- Eta bestetik, irisgarritasuna; hau da, zenbat jenderengana heldu den.
 - Meme lehiaketan: (*like* kopurua + iruzkinak) / inpresioak x 100
 - TikTokeko lehiaketetan: *like* kopurua.

Lehiaketara aurkeztutako lanak www.gozatusareaneuskaraz.eus webgunean publikatuko dira.

– **Sariak:**

Erronka bakoitzean bi irabazle egongo dira:

- 200€ko saria eduki originalenari, umoretsuenari eta kalitate tekniko altuena duenari emango zaio.
- 150€ko saria TikTok-eko erronken kasuan *Like* kopuru altuena duenari eta Meme lehiaketan irisgarritasun handiena izan duenari emango zaio.

– **Irabazlea erabakitzeko modua:**

Erronka bakoitzaren irabazlea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako bi kidek eta bi adituk osatutako epaimahaiak aukeratuko du. *Like* kopuruaren sariaren kasuan, berdinketarik edo aurreikusi gabeko egoerarik gertatuz gero, epaimahaiak erabakiko du zer egin. Balizko irabazleak aukeratzeari dagokion erabakia behin betikoa izango da.

Saritutako bideo eta meme guztiak, ikusgai jarriko dira www.gozatusareaneuskaraz.eus webgunean.

Erronkak bidali eta epai-mahaiak erabakiak hartzeko epeak eta sari ematea:

- Lehenengo bi erronkak urriaren 17an hasiko dira. Bi asteko epea egongo da parte hartzeko eta sariak azaroaren lehen astean emango dira.
- Bigarren txandako bi erronkak azaroaren 7an hasiko dira. Bi asteko epea egongo da parte hartzeko eta sariak azaroaren 21aren astean emango dira.

Arau orokorrak:

Sustapena ez dago inola ere TikTokekin babestuta, endosatuta, administratuta edo elkartuta.

Saria onartzea:

Autonomia-erkidegoetako, estatuko eta tokiko lege eta erregelamendu guztiak aplikatzen dira. Saria eman aurretik edo emateko unean, balizko irabazleak, gurasoetako batek edo tutoreak zinpeko aitortpena egin behar du/saria onartzeko/erantzukizunetik salbuesteko. Idatzi hori ez osatzeak deskalifikazioa eta ordezeko irabazle bat hautatzea ekar dezake, legeak debekatzen ez badu. Saria onartzen ez bada, sari hori galduko da. Irabazle potentzialak arau ofizial horiek betetzen ez baditu edo GSEk ezin badu aukeratutako irabazle batekin harremanetan jarri irabazlea hautatu eta arrazoizko epe baten barruan, saria galdu egingo da, eta, GSEak hala erabakita, ordezeko irabazle bat hautatuko da. Sariaren esleipenari dagokionez, irabazleak/gurasoak edo tutoreak onartu egiten du, bestelako baimenik, konpentsaziorik edo ordainsaririk gabe, irabazlearen izena, ahotsa, irudia eta/edo antzekotasuna erabiltzea iragarki, promozio eta GSEak egindako beste publizitate guztietan.